

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior

EUSKO JAURLARITZAREN LANA ESKUALDEETAKO LANTALDEAN

URTEKO BALANTZEA 2007

Vitoria-Gasteizen, 2008ko martxoaren 10ean

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Irizpen-proiektuak Eusko Jaurlaritzako sailei bidaltzea.....	5
1.1. Irizpenak helarazi zaizkien Eusko Jaurlaritzako sailen zerrenda.....	6
1.2. Irizpenetako gai-zerrenda.....	7
2. Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinek jarrera zehaztea.....	8
2.1. Sailek emandako erantzun-motak.....	9
3. Jarrera defendatzea: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak.....	10
3.1. Onartutako zuzenketa-portzentajea.....	11
4. Beste eskualde batzuetako zuzenketak babestea.....	11
5. Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Lantaldean (EL) egindako ekintzak eta jarduerak.....	13
5.1. Eusko Jaurlaritzak ELn emandako hitzaldi bereziak. Eusko Legebiltzarraren ekarpen berezia.....	13
5.2. Ezohiko ekitaldiak Erromako Hitzarmenaren 50. urteurrenagatik, ELk antolatuta (69. Osoko Bilkura, 2007ko martxoaren 23koa).....	17
5.3. Euskadin antolatutako ezohiko bilerak.....	19
5.4. ELrekin zerikusia duten osoko bilkuretatik kanpoko jarduerak.....	21
5.5. Subsidiariorotasunaren azterketa.....	24
5.6. Euskadiko mintegiak eta ekarpen bereziak.....	27
6. Eskualdeetako Lantaldeari buruzko ondorioak.....	30
 Eranskinak	
I. Eranskina: Irizpen-proiektuen zerrenda.....	34
II. eranskina: Barne-araudiaren aldarazpen nagusiak.....	37



Sarrera


Eskualdeetako Lantaldea Europar Batasuneko kontsulta-organoa da, Maastrichteko Itunaren ondotik sorturikoa 1992an. Abian 1994an jarri zen, eta ordudanik kontsultaboterea eta eragina areagotu ditu, bai Batasuneko legedian, bai Europako agenda politikoan ager daitezkeen arazo garrantzitsuenen ebazpenean.

Batasuneko kide diren 27 herrialdeetako eskualdeetako 344 lehendakari, alkatek, zinegotzik, kontseilarik eta abarrek eratutakoa da, eta haren eginbeharra Bruselara joatea da ordezkari diren herritarren ikuspegiak eta interesak defendatzera. Horretarako, beharrezkoa da alde zurretik lana egitea, funtsean Gobernuko sail ezberdinetatik iritziak eta lege europarrei egiteko aldaketa-proposamen zehatzak biltzea ondoren Bruselan defendatzeko.

Eusko Jaurlaritzako barne-prozedura honakoa litzateke:

- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik (Lehendakaritza) irizpenak bidaltzen zaizkie Gobernuko gainerako sailei, haien erakunde autonomoi edo EUDELi.
- Sailen balorazioa edo jarrera hartzea lantaldearen irizpenen gainean.
- Zuzenketa zehatzak aurkeztea; horretarako, beharrezkoa da beste eskualde batzuetako babesa lortzea.
- Lobby eta zuzenketen defentsa Bruselan.

Prozedura horren gaineko eskema erakutsi aurretik, azpimarratzekoa da Euskadiko kide titularra Lantaldean lehendakaria dela, eta ordezkaria, 2007ko abendura arte, Jose Maria Muñoa izan dela, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkaria.



2005eko amaieratik aurrera, Eskualdeetako Lantaldeko osoko bilkuretan euskararen erabilera baimendu zen datatik aurrera hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak Lantaldean izandako esku-hartze guztiak hizkuntza horretan egin dira.

Europako araudiari egindako zuzenketak aurkezteaz gain, Eusko Jaurlaritzak aldi berean garatutako bileretan edo Eskualdeetako Lantaldearekin zerikusia duten beste ekitaldi batzuetan egindako lana oso garrantzitsua izan da, ikusi ahal izango duzuen moduan.

1. Irizpen-proiektuak Eusko Jaurlaritzako sailei bidaltzea

Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkariak, Jose Maria Muñoak, **59 iritzi-eskaera** bidali zizkien guztira Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinei, Eskualdeen Lantaldeak helarazitako **43 irizpen-proiektuen** gainean.

Jarraian, Osoko Bilkuren eta Batzordeen araberako iritzi-eskaeren banaketa islatuko da taula batean:

Osoko Bilkurak:

Osoko Bilkura kop.	Datak	Iritzi-eskaera kop.
68	Otsailaren 13-14a	14
69	Martxoaren 23a	3
70	Ekainaren 6-7a	11
71	Urriaren 10-11a	11
72	Abenduaren 28-29a	12

Batzordeak:

Batzordeen bilerak	Iritzi-eskaera kop.
ECOS	5
CONST	6

Eusko Jaurlaritzak, Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkariaren irudiaren bitartez, bi batzorderen bileretara joan da Osoko Bilkurez gain: Ekonomia eta Gizarte

Politikaren Batzordea (ECOS) eta Konstituzio Gaietako eta Gobernantza Europarraren Batzordea (CONST).

Aztertutako irizpide-kopurua eta sailei helarazitako iritzi-eskaerena alderatuz gero, ikusiko dugu irizpide-proiektu kopuru berdinarekin (43 2006an eta 2007an), 2007an 11 bidalketa gehiago egin direla (48 eskaera 2006an eta 59, aldiz, 2007an).

Erantsitako dokumentuan Eusko Jaurlaritzarentzat interesgarriak diren irizpen-proiektuen zerrenda aurkeztu da. Horiek Eskualdeetako Lantaldeak landutakoak izan dira 2007an zehar.

1.1. Iritzi-eskaerak helarazi zaizkien Eusko Jaurlaritzako sail eta enteen zerrenda

Eusko Jaurlaritzaren aldetik jasotako 59 iritzi-eskaerak bat datoz hurrengo sail eta enteekin:

Sailak eta enteak	Iritzi-eskaera kopurua
Lehendakaritza	17
Lehendakariordetza	1
Ogasuna eta Herri Administrazioa	7
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	3
Industria, Merkataritza eta Turismoa	5
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	7
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	3
Osasuna	1
Kultura	3
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	3
Garraioa eta Herri Lanak	5
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	3
EMAKUNDE	1
GUZTIRA	59

2007an iritzi-eskaera gehiago egon den arren 2006an izandakoekin alderatuta, kontsultatu diren sailen kopurua txikiagoa izan da. Horren arrazoia Eskualdeetako Lantaldeak bere irizpen-proiektuetan jorratutako gaiak dira.

1.2. Eusko Jaurlaritzako sailen iritzi-eskaeren gai-zerrenda

Jarraian, sailei egindako bidalketen gaiak zehazten diren taula erantsi da.

Eusko Jaurlaritzako sailen gaiak	Iritzi-eskaera kopurua
Administrazioa eta industria-antolamendua	1
Nekazaritza	1
Gizarte-ongizatea	3
Lehiakortasuna eta industria-politika	2
Kontratazio publikoa	1
Kultura	1
Kirola	1
Hezkuntza	2
Energia	1
Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna	1
Immigrazioa	3
Integrazio europarra eta erakundeak	17
Ikerketa eta garapena	1
Gazteak	1
Ingurumena	2
Lurralde-antolamendua	1
Arrantza	1
Eskualdeko politika	1
Eskualde- eta kohesio-politika (FEDER)	1
Eskualde- eta kohesio-politika (Kohesio-funtsa)	5
Hiri- eta etxebizitza-politika	1
Portuak	1
Osasun publikoa	1
Laneko segurtasuna eta osasuna	2
Informazioaren gizartea	2
Telekomunikazioak	1
Garraioak	4

ELk aniztu egin ditu irizpen-proiektuetan jorratutako gaiak, izan ere, iazkoaren aldean, areagotu egin dira 2006ko 22etatik 2007ko 27etara.

2. Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinek jarrera zehaztea

Iritzi-eskaerei emandako erantzun-kopurua aztertuz gero, aurten 44 erantzun jaso dira guztira eta erantzun-maila % 75ekoa da. Xehetasun gehiago eskuratzeko, kontsultatu jarraian aurkezten den taula:

Sailak eta enteak	Helarazitako eskaerak	Jasotako erantzunak	Betetze maila
Lehendakaritza	17	17	% 100
Lehendakariordetza	1	0	% 0
Ogasuna eta Herri Administrazioa	7	3	% 43
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	3	3	% 100
Industria, Merkataritza eta Turismoa	5	5	% 100
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	7	5	% 71
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	3	2	% 67
Osasuna	1	1	% 100
Kultura	3	1	% 33
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	3	1	% 33
Garraio eta Herri Lana	5	3	% 60
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	3	3	% 100
EMAKUNDE	1	0	% 0
GUZTIRA	59	44	% 75

Kontsultatu diren sail ezberdinetako gauzatze-maila, orokorrean, nahiko ona izan da: hain zuzen ere, erantzun-maila % 75ekoa da. Aitzitik, erantzuna ez da berdina izan kasu guztietan, hurrengo multzoetan ikus daitekeen bezala:

- **Erabateko gauzatze-maila:** 5 sail: Lehendakaritza; Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Osasuna; Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura.
- **Gauzatze-maila ertain-altua:** 3 sail: Etxebizitza eta Gizarte Gaiak; Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa eta Garraio eta Herri Lana.

Beste era batera esatearren, kontsultaturiko 13 sailetatik, 8 sailek erabateko gauzatze-maila edo gauzatze-maila ertain-altua izan dute.

2.1. Sailek emandako erantzun-motak


Sailek, iritzi-eskaerei erantzuterakoan, hiru erantzun-mota eman ditzakete: irizpenarekiko adostasuna, zuzenketak hari aurkezteko edo testuaren gaineko iritzi orokorrak adieraztea. Lortutako emaitza honakoa izan da:

- **Adostasuneko 24** erantzun, hau da, lortutako erantzun guztien **% 55a**.
- **20** erantzun **zuzenketekin**; kopuru horrek sailek bidalitako erantzun guztien **% 45a** hartzen du.

Beste urte batzuetan ez bezala, erantzunen kopurua altuagoa izan da irizpen-proiektuekiko adostasuna adieraziz, horiei zuzenketak aurkeztuz baino. Zentzu horretan, ikusi dugu adostasuneko erantzunak % 11 areagotu direla iazkoen aldean.

Xehetasun gehiago eskuratzeko, hurrengo grafikoan islatzen dira lortutako emaitzak:

Grafikoa: Sailen erantzun-motaren eboluzioa 2006 eta 2007 artean



3. Jarrera defendatzea: Eusko Jaurlaritzaren zuzenketak


Eusko Jaurlaritzako sailek **80 zuzenketa** egin dizkiete **guztira**, Eskualdeetako Lantaldearen irizpen-proiektuei. 80 zuzenketa horietatik **70ek** behar besteko babesak lortu zuten **aurkeztu** ahal izateko, bai osoko bilkuretan, bai batzordeetan, eta, halaber, horietatik **55 onartu** egin ziren.

Jarraian datorren taulan zuzenketak aurkeztu dituzten sailen zerrenda aurkeztuko da, horien emaitza bezalaxe:

Kontsultatutako saila edo entea	Landutako zuzenketak	Aurkeztutako zuzenketak	Onartutako zuzenketak
Lehendakaritza	15	15	14
Ogasuna eta Herri Administrazioa	1	0	0
Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza	6	5	2
Industria, Merkataritza eta Turismoa	14	11	11
Etxebizitza eta Gizarte Gaiak	14	9	6
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa	13	13	6
Ingurumena eta Lurralde Antolamendua	1	1	1
Garraio eta Herri Lana	5	5	4
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	11	11	11
GUZTIRA	80	70	55

Jarraian datorren grafikoak 2006an eta 2007an lortutako emaitzen datuak biltzen ditu.

Grafikoa: Idatzitako, aurkeztutako eta onartutako zuzenketen eboluzioa 2006 eta 2007 artean



Orokorrean, Grafikoak hazkundera islatzen du 2007ko zuzenketa-kopuruan, 2006an aurkeztutako zuzenketen aldean hiru kasuetan. Landutako zuzenketei dagokienez, 2007an aurreko urtean baino 9 zuzenketa gehiago landu ziren (80, 2006ko 71n aldean). Aurtengo eta iazko kopuruaren arteko aldea nabarmenagoa da aurkeztutako zuzenketei dagokienez; izan ere, 2007an 70 aurkeztu ziren, 2006ko 54en aldean. Onartutako zuzenketek ere hazkundera islatzen dute iazkoen aldean, 2006ko 47etatik 2007ko 55etara igarotzen direlako.

Portzentajeei arreta emanez orain, 2007an landutako zuzenketen % 88a aurkeztu zen, hau da, 2006an baino % 8 gehiago (% 76). Zentzu horretan, areagotu egiten da efikazian eta eraginkortasunean sailek eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzak elkarrekin egindako lana.

Sailen aldetik jasotako zuzenketa guztiak ez aurkeztearen arrazoiak Eskualdeetako Lantaldeko kide diren beste eskualdeetatik 5 babes lortu behar izatea da. Halaber, irizpena aho batez onartzen denean batzorde batean, 32 sinadura edo talde politiko osoaren babesa behar dira osoko bilkuran zuzenketa horiek aurkeztu ahal izateko.

Aldi horretan zehar Euskadiko ordezkariak ELDA talde politikoaren lehendakariordetzaren kargua bete zuenez, euskal zuzenketentzako babesa eskatu da ELDA taldearen beraren barruan.

3.1 Onartutako zuzenketa-portzentajea

Ikusi ahal izan dugu aldi honetan onartutako zuzenketa-portzentajea iazkoa baino pixka bat baxuagoa izan dela (% 79 2006ko % 87aren aldean). Aitzitik, portzentajeak altua izaten jarraitzen duela uste dugu. 2007an aurkeztutako hamar zuzenketatik ia zortzi onartu egin ziren.

4. Beste eskualde batzuetako zuzenketak babestea

Euskadik bere zuzenketak beste eskualde batzuei helarazi dizkien moduan babesa eskuratzeko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak aurkeztuak izateko babes bila dabilzan beste eskualde batzuen zuzenketak jasotzen ditu, jarraian datorren taulak islatzen duen bezala.

2007an zehar, Espainiako 10 eskualdek, ELDA Talde Politikoaz eta Subsidiaritasun-sareaz gain, **161 zuzenketa landu zituzten**. Horietatik, **Euskadik 116 babestu zituen**.

Horrek esan nahi du **Euskadik** jasotako zuzenketen % **72a** babestu zuela gutxi gorabehera.

Zuzenketen bidaltzaileak	Jasotako zuzenketa-kop.	Euskadik babestutako zuzenketa-kop.
Andaluzia	27	10
Asturias	27	20
Kanariar uharteak	25	24
Katalunia	1	1
Gaztela eta Leon	3	3
Galizia	9	6
Madril	21	8
Murtzia	2	2
Nafarroa	3	3
Valentzia	12	6
ELDA	27	14
Subsidiarotasun-sarea	11	11
GUZTIRA	161	116

Zuzenketa horiei babesa ematerakoan, Gasteizen kokatzen den Kanpo Harremanetarako Idazkaritzaren lantalde tekniko arduradunera jotzen da batez ere, Bruselan kokatzen den Euskadiko Ordezkaritzaren babesa ere izanez aldizka. Neurri txikiagoan jotzen da Jaurlaritzako beste sailtako teknikariengana, erantzuteko epeak 24 edo 48 ordukoak izaten direlako normalean. Horiek guztiek beren iritzia arrazoitzen dute, Eusko Jaurlaritzak kasuan kasuko gaien daraman politikarekin bat etorriz. Ondoren, KHINA da balorazio hori jakinarazteko ardura duena babesa eskatu diguten eskualdeei.

Ondorioz, beste eskualdeetatik jasotako zuzenketa-kopurua kontuan hartuz gero, babes-lanak neketsuak eta biziak izan dira. Aitzitik, lan horiek funtsezkotzat jotzen dira, elkarrekin zuzenketak aurkeztea ahalbidetzen duelako, eta horrek Euskadik European duen entzutea eta iritzia areagotzen laguntzen du.

5. Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Lantaldean (EL) egindako ekintzak eta jarduerak

5.1. Eusko Jaurlaritzak ELn emandako hitzaldi bereziak. Eusko Legebiltzarraren ekarpen berezia

5.1.1. **68. osoko bilkura** (2007ko otsailaren 13-14a): Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkari den Jose M. MUÑOAREN **hitzaldia**, ELDA talde politikoa ordezkatzuz. Hitzaldia **BARROT jaunaren aurrean eman zen, Europako Batzordeko lehendakariordea eta Garraioetako komisarioa.**

Jose M. Muñoak eskerrak eman zizkion komisario jaunari Garraioen eremuan eta, batez ere, errepide bidezko garraioarenean, hirikoan eta itsasotikoan etorkizunerako aurreikusitako jarduerak argitzeko izandako bere esku-hartzeagatik.

Pertsonen nahiz merkantzien garraioak duen geroz eta garrantzi estrategiko handiagoa azpimarratu ondoren, Muñoak bi alderdi nagusi nabarmendu zituen: garapen ekonomikoa eta lurralde-koheretza, garapen iraunkorra kontuan hartuta. Ordezkariak azpimarratu egin zuen bi faktore horien arteko oreka lortu ezean, etorkizun hurbilean integrazioa eta koheretza gabeko Europa baten aurrean egongo garela, lurraldeen arteko nahiz erdigune eta kanpoaldearen arteko alde garrantzitsuekin. Horrek kostu ekonomiko eta sozial handiagoa ekarriko luke guztientzat, baita egun onura gehien jasotzen dituztela uste den lurralde horientzat ere.

Illo horretatik abiatuz, ordezkariak jarraitu egin zuen orekaren funtsezkotasuna azpimarratuz. Hori ez da hainbatetan errespetatu izan, adibidez Esseneko 1994ko Kontseilu Europarrean, han lehentasun batzuk definitu zirelako baina 12 urte aurrerago oraindik ez direlako errespetatu. Gauzak horrela, Muñoa jaunak hobetu beharreko hurrengo alderdiak adierazi zituen:

- Salgaien garraioaren zati nabarmena trenbidera (fer routage) eta itsasoko autopistetara eramateko beharra.
- Hiri-garraioa eboluzionatzea eskatzea.
- Itsasoari buruzko ikerketari edo energia berriztagarri berri baten erabilerari garrantzia emateko komenigarritasuna: olatuak.

Ondoren, komisarioa zoriondu zuen gai horiek guztiak biltzen dituen Liburu Zuria egiteagatik. Aitzitik, azpimarratu egin zuen bi alderdi hobetu egin beharko liratekeela:

1. Proposamen zehatzagoei arreta ematea, eraginkortasun eta konpromiso handiagoko neurriak jorrateari beldurrik izan gabe.
2. Eskualdeek eta udalerriek Garraio-politikaren definizioan bete beharreko papera argi zehaztea. Ondorioz, komisario jaunari zera eskatu zion: eskualdeetako enteei politika horren definizioan parte

hartzeko beharrezko bideak martxan jartzea, lurralde bakoitzeko berariazko inguruabarrak eta arazoak ezagutzen dituzten heinean ekarpen ugari egin ditzaketelako.

5.1.2. 70. osoko bilkura (2007ko ekainaren 6 eta 7a): Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkari den Jose M. MUÑOAREN **hitzaldia**, ELDA Talde Politikoa ordezkatur. Hitzaldia **JUNCKER jaunaren aurrean eman zuen, Luxenburgoko lehen ministroa.**

Muñoa jaunak Luxenburgoko lehen ministroa zoriondu zuen egindako lanagatik eta Europar Batasunaren integrazioaren inguruan erakutsitako konpromiso pertsonalagatik. Ondoren, Europar Batasunari "Adierazpena" emateko beharra aldarrikatzera igaro zen, horren bitartez EBren helburu nagusiak eta izateko arrazoia argitzeko Batasunaren erreforma-prozesua aprobetxatuz.

Muñoa jaunaren hitzetan, Batasunak ekain hartan bizi zuen egoeraren ondorioz, ibilbide-orria izatea ez zen nahikoa. Hain zuzen ere, izandako zabalkunde ugariak eta nazioartean jazotako aldaketak izan dira horren arrazoi, eta uste du Europar Batasunak jarduteko esparru berria behar duela. Esparru berri hori, ematen zaion izena emanda ere, Europak aurre egin beharreko erronka berriei erantzuna emateko gai izan behar da, herritar europarrei ilusioa emateko gai izatearekin batera.

5.1.3. 70. osoko bilkura (2007ko ekainaren 6 eta 7a): Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkari den Jose M. MUÑOAREN **galdera PIEBALGS jaunari, Energiaren komisario europarra.**

Piebalgs jauna Eskualdeetako Lantaldearen bilkurara joan zen Batzordeak EBren energia-politika berrian planteatutako helburu berriak argitzeko. Horien artean azpimarratzekoa da hurrengo helburua: energia-iturrien % 20a energia berriztagarrietatik etortzea. Azalpena egin ondoren, komisarioak galdera eta erantzunen saio batean parte hartu zuen, ELko eskualde- eta toki-ordezkariekin.

Muñoa jaunak komisarioari zera adierazi zion merkatuen integrazioaren eta energia-azpiegituren alorrean: badirudi mugez haraindiko loturak falta izateak eta energia-produktu eta -zerbitzu ezberdinen zergak berdinak ez izateak galarazi egiten duela mugakide diren eskualdeen artean energia-truke eta -osagarritasuneko sistemak hobetzea. Horrek eragin argia du kostu gehigarrietan energia-sistemarentzat, hain zuzen ere eskualdeen arteko sinergiak ez aprobetxatzea igarobide ekonomikoen mugan eta desberdintasunak izatea inbertsio aukeretan. Europar Batasunak instalatutako edukieraren % 10eko gaitasun-maila planteatu du 2010erako mugez haraindiko loturei dagokienez.

Komisarioari egindako galdera honakoa izan zen: "Eskualdeak kontuan hartzen ez dituen estatu-mailako helburua izateaz gain (estatu-mailako helburua betetzera iris

daiteke eta aldi berean eskualdeek “konexio gutxi” izatea), ez al luke lehentasunezko helburu europarra izan behar eremu horretan aurrerantz azkarrago egiteak?.

Bere esku-hartzea prestatzerakoan, Muñoa jaunak Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) laguntza izan zuen, eta baita Energia eta Meategien zuzendari den Lezamiz jaunarena ere. Energia eta Meategien Zuzendaritzatik 5 galdera bidali ziren osoko bilkuran planteatzeko, nahiz eta esku-hartze kopuru altuagatik Muñoa jaunak horietako bat bakarrik egin ahal izan zuen.

5.1.4. 71. osoko bilkura (2007ko urriaren 10 eta 11n): Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkari den Jose M. MUÑOAREN **hitzaldia**, ELDA Talde Politikoa ordezkatur. Hitzaldia **ORBAN jaunaren aurrean eman zuen, Eleaniztasunerako komisario europarra.**

Muñoa jaunak izendatu berri zen komisarioa zorionduz hasi zuen bere esku-hartzea, Europar Batasuneko kargu garrantzitsuenetako bat izateagatik bi arrazoi direla-eta: lehenik eta behin, Batasuna ez litzatekeelako existituko europarren artean ulermenik ez balego, eta bertan hizkuntzek funtsezko papera betetzen dute. Europako kultura-ondare handiena dira, eta, horregatik, beharrezkoa da horiek mantentzea eta horien bitartez bizitzeko gai izatea. Bigarrenik, benetako Batasuna lortzeko gakoa herritarren mugikortasunaren bitartez bakarrik da posible, eta, bertan, hizkuntzek garrantzia berezia dute.

Eskainitako hitzaldian zehar, ordezkariak euskaraz hitz egin zuen, eta adierazitako hizkuntzaren antzinatasuna azpimarratu zuen. Halaber, euskara jarri zuen hainbat hizkuntzako eskualdean bizikidetzeta eta ulermena posible dituen hizkuntza bezala, hain zuzen ere Euskal Herrian gatzelerak, euskarak eta frantsesak bizi duten egoerari heldu zion.

Jose M. Muñoak, halaber, komisarioak egun batzuk lehenago aurkeztutako “Eleaniztasunari buruzko goi-mailako lantaldearen” azken txostena aipatu zuen. Pozik agertu zen orokorrean eskaintzen zuen ikuspegi estrategikoagatik, eta bereziki babestu zuen txosten horretan eskualdeetako hizkuntzen eta gutxiengoan zeudenen gainean egiten zen planteamendu politikoa eta pragmatikoa.

Lehendakariaren ordezkariak hizkuntzaren, kulturaren eta lurralde bateko garapen ekonomikoaren artean dagoen lotura azpimarratuz amaitu nahi izan zuen bere esku-hartzea. Zentzu horretan, azpimarratu egin zuen eleaniztasuna egunerokoan garatzea funtsezko elementua zela lehiakortasuna areagotzeko.

5.1.5. 72. osoko bilkura (azaroaren 27 eta 28a). Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkari den **Muñoa jaunaren galdera BORG jaunarentzako, Arrantza eta Itsas Gaietako komisario europarra.**

Eskualdeetako Lantaldeak Borg jaunari gonbitea luzatu zion. Hark, Europako itsas-politikaren etorkizunari buruzko ideiak aurkeztu ondoren, galderen eta erantzunen saio batean parte hartu zuen Osoko Bilkurara bertaratu ziren eskualdeetako eta tokiko ordezkariekin.

Muñoa jaunak galdera bat egin zuen errepide bidez garraiaturiko salgaiak itsasoz garraiaturikoen aldean zuen eraginaren gainean eta Batzordeak erakunde europar ezberdinen ekimenean gainean itsasoko autopistak sustatzeko egindako ebaluazioaren gainean.

Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Lantaldean izandako parte-hartzea aztertzeaz gain, interesgarria iruditu zaigu Eusko Legebiltzarreko lehendakari den Izaskun Bilbao andrearen parte-hartzea ere eranstea, hain zuzen ere Eskualdeetako Lantaldeak bere egoitzan antolaturiko ekitaldi batean.

Izaskun Bilbao andreak, EELBren lehendakari gisa (Europako Estatu Legegileetako Legebiltzarretako Lehendakarien Batzarra), **Europako Batzordeko lehendakariorde den Wallström andrearen** aurrean esku hartu zuen 71. osoko bilkuran (2007ko urriaren 10 eta 11n), "Elkarrizketa Egituratua" delakoaren esparruan.

Elkarrizketa Egituratua Europako Batzordearen ekimena da, eta helburutzat hurrengoan arteko komunikazioa sustatzea du: batetik, tokiko eta eskualdeko elkarte eta agintarien artekoa; bestetik, Europako Batzordearekikoa. Testuinguru horretan, Izaskun Bilbao andreak komisarioaren aurrean esku hartu zuen EELBren lehendakari gisa eta hiru galdera egite aldera:

- Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiari helduz, hain zuzen ere eskualdeetako zerga-sistemak onartzeari atea irekitzen dionari, Wallström andreaki galdetu zion ea Europako Batzordeak auzitegi horrek adierazitako autonomia finantzarioaren irizpidea hartuko zuen etorkizuneko erabakietan.
- Aurrekontu- eta kohesio-politikari dagokionez, bi eremu horietan eskualdeetako enteen artean kontsultarako berariazko mekanismoak jartzeko aukerari buruz galdetu zuen.
- Lisboako Itunean jasotako alerta goiztiarreko sistemari dagokionez, Batzordeari eskatu zion prozedurari heltzeko Lisboako Itunari erantsitako protokolo berriak jasotzen duen bezala. Halaber, gai horren inguruan erakundeen arteko akordioa onartzera bultzatu zuen, Kontseilu Europarrarekin eta Europako Parlamentuarekin.

5.2. Ezohiko ekitaldiak Erromako Hitzarmenaren 50. urteurrenagatik, ELk antolatuta (69. Osoko Bilkura, 2007ko martxoaren 23koa)

5.2.1. *ELDA talde politikoaren prestakuntza-bilera (Europako Liberalen eta Demokratien Aliantza), Erromako ezohiko osoko bilkurarako*

Osoko bilkura hau ezohikoa denez, ELDA talde politikoak, Eusko Jaurlaritza partaide dena, maila goreneko bere politikariak gonbidatu zituen Europaren aldeko hitzak emateko "Europar Batasunerako Asmoen Adierazpena eta hurrengo 50 urteak EBn" delakoaren esparruan. Hura Taldeak diseinaturikoa izan zen. Azpimarratzekoa da adierazpen horrek oihartzun sozial eta mediatiko handia izan zuela Europan.

Adierazpena dokumentu laburra, malgua eta zehatza da, berariaz Europako biztanleei zuzendurikoa, EBren zergatia eta helburuak azaltzeko XXI. mendeari dagokionez.

ELDA taldeak indarrez babestu bazuen ere Konstituzioaren Ituna, bertan ez zen modu argi eta xumean azaldu zertarako balio duen EBk. Arrazoi hori dela-eta, Taldeak uste du beharrezkoa dela horrelako dokumentu bat lantzea. Izan ere, geroz eta europar gehiagorentzat XXI. mendeko EB ez dago oso argi, eta XX. mendeko Europaren oinarrian zeuden printzipioak garai bateko bataila modura ikusten dituzte belaunaldi gazteek inkestek diotenaren arabera.

Lan horretan hurrengoek parte hartu zuten: Josu Jon IMAZ jauna, EAD alderdiko lehendakariorde eta EAJko lehendakari; Artur MAS jauna, Kataluniako Konbergentzia Demokratikoko lehendakari; Adan MARTIN MENIS jauna, Kanariar Uharteetako lehendakari eta Koalizio Kanariarreko lehendakari; Pat COX jauna, Europako Parlamentuko lehendakari ohia; Graham WATSON jauna, Europako Parlamentuan ELDA taldeko liderra; Annemie NEYTS andrea, ELDR alderdiko lehendakaria; Leonard ORBAN jauna, Errumaniako komisario europarra eleaniztasunerako; Armand DE DECKER jauna, Belgikako ministro federala; Kristina OJULAND andrea, Alderdi Erreformistako lehendakariordea eta Estoniako Kanpo Arazoetako ministro ohia; Werner HOYER jauna, Diputatuen Kontseiluko kide eta ELDR alderdiko lehendakari ohia; Flo CLUCAS andrea, ELn ELDA taldeko lehen lehendakariordea eta Liverpoolgo Udaleko kide exekutiboa; eta Errumaniako PNL alderdiko kideak.

Adierazpen horren alde politikariek izandako esku-hartzearekiko paraleloan, ELDAk puntu berri bat eransteko lehiaketa iragarri zuen: proposamen onenak egiten zituzten hamar parte-hartzaileek Erroman parte hartzeko gonbitea jasoko zuten. Ondorioz, bileran 10 proposamenak entzun ziren, horietako bat aukeratu eta horietako bat amaierako Asmoen Adierazpenean sartu zen.

Lehiaketa gazteei zuzendurikoa izan zen, jarraian helduko dugun Ezohiko Osoko Bilkuran zehar egindako Gazteriaren Foroa ospatzeagatik. Horri dagokionez, hainbat gaztek azkenean zoritxarrez hautatu ez ziren proposamenak aurkeztu zituen.

5.2.2. Ohiko Osoko Bilkura eta Ospakizun-bilera

Osoko Bilkura egun batekoa izan zen, eta bertan 3 irizpen bakarrik eztabaidatu ziren. Gainerako denbora 50. urteurrenarekin zerikusia zuten ospakizun-egintzetarako gorde zen. Ekitaldi horiek Ospakizun-bilera batean egin ziren hurrengoek hasita: NAPOLITANO jauna, Italiako Errepublikako presidentea; MARRAZZO jauna, Lazio eskualdeko lehendakaria eta DELEBARRE jauna, CDRko lehendakaria.

Jarraian bi mahai-inguru izan ziren. Lehenengoaren gaia “Europako erakundearen bultzada berria eta lurraldeetako taldeak” izan zen, eta bertan hurrengoek parte hartu zuten: BARROSO jauna, Europako Batzordeko lehendakaria; MORATINOS jauna, Kanpo Arazoetako Espainiako ministroa; D’ALEMA jauna, Kanpo Arazoetako ministro italiarra; ASSELBORN jauna, Kanpo Arazoetako Luxenburgoko ministroa; GLOSER jauna, Kanpo Arazoetako ministro alemaniarra; DELORS jauna, Europako Batzordeko lehendakari ohia eta PRODI jauna, Italiako Errepublikako lehen ministroa.

Bigarren mahai inguruaren gaia honakoa izan zen: “Biharko Europa eta toki eta eskualdeetako agintarien ekarpena”. Bertan, toki- eta eskualde-mailako 10 pertsonak eta Gazteria Europarraren Foroko ordezkariak parte hartu zuten.

Azkenik, ekitaldia **“Europaren aldeko Eskualdeetako Lantaldearen Adierazpena”** delakoarekin amaitu zen. Adierazpen horrek bi helburu nagusi izan zituen: batetik, bakean, egonkortasunean eta Europako kontinentearen oparotasunean integrazteko prozesuan izandako laguntza azpimarratzea; bestetik, Europako herrien artean geroz eta estuagoa den Batasunaren alde egiteko nahia berrestea. Askatasunei, balioei eta solidaritate- eta erantzukizun-printzipio eta balioei esker sendoa den Batasuna litzateke, politika eta egintza komunak garatzeaz gain, aniztasuna eta toki eta eskualdeen nortasuna ere babesten dituen.

Adierazpen horren bitartez, Michel Delabarre jaunak, ELren lehendakari moduan, estatuburuak eta gobernuburuak gonbidatu zituen adierazitako adierazpena kontuan hartzera. Izan ere, horren bitartez Berlinen, 2007ko martxoaren 25eko Gailur Informalean, onartutako “Europako balioei eta perspektibei buruzko adierazpena” babestea zen haren asmoa.

Lehendakariaren ordezkariak parte hartu zuen adierazitako oroipen-ekitaldi horietan, Europako eskualde eta hirietako 600 ordezkari baino gehiagorekin batera eta azkenean Europaren alde aurkeztutako Amaierako Adierazpena babestuz.

5.3. Euskadin antolatutako ezohiko bilerak

5.3.1. *Eskualdeetako Lantaldeko ELDA Talde Politikoak Bilbon egindako Ezohiko Bilera (2007ko apirilaren 22 eta 23a). Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak antolaturikoa*

Eskualdeetako Lantaldeko ELDA Talde Politikoak Bilbo hiria aukeratu zuen urte horretan urteko ezohiko bilera egiteko.

Talde hori, EAJ kideztat duena eta, beraz, ELn euskal ordezkariak kideztat dituena, Lantaldeko hirugarren indar politikoa da. Egun 54 kide ditu, Lantaldeko beste hainbat ordezkariarekin batera. Horiek, aldi berean, alkateak, zinegotziak edo eskualdeetako gobernuetako kideak dira, eta EBko 20 herrialde kide baino gehiagotik datoz.

Bilera honen helburua, barruko gaiak jorratzeaz gain, Euskadiko egoera politikoaren, ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren gaineko ikuspegi orokorra hartzea izan zen, gure herrialdearen industria-eraldaketa garatzeko izandako modua azpimarratuz.

Horretarako, hurrengoan esku-hartzea aurreikusi zen: ELDAren barruan kokaturiko EAJ alderdiko lehendakari den Josu Jon IMAZ jauna, Euskadik Europan zuen paperaren gaineko bere ikuspegia emanez; Ibon ARESO jauna, Bilboko Udaleko zinegotzi, Bilbo hiriaren eraldaketa eta garapenari buruz mintzatuz; Jose Maria MUÑOJA jauna, Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkaria, alderdi ekonomikoari aurre eginez. Hasiera batean ekitaldia Juan Jose IBARRETXE lehendakari jaunak ixtea aurreikusi bazen ere, azkenean ezinezkoa izan zen, egun eta ordu berdinean gobernu taldeak bere alderdiko kide enblematiko baten hileta-elizkizunetara joan behar izan zuelako. Edonola ere, lehendakariak parte-hartzaile guztiak agurtzera eta haiekin laburki hitz egitera etortzeko aukera izan zuen.

Jarraian, Luis GABIOLA jaunak, Bilboko Portuko Agintaritzako Eragiketa zuzendariak hurrengoak azaldu zituen in situ: “zabalkundearen” garapena, Santurtziko Industria-portua, zonaldean garatutako eraldaketak eta onartutako edo etorkizunari begira aurreikusten diren plan estrategikoak. ELDA taldea, alkateak gehienak, harriturik geratu zen Bilbok jasandako metamorfosiarekin, eta interes handia agertu zuten proiektuak finantzatzeko erabilitako moduarekin nahiz parte hartu zuten sektoreekin.

Aurreko egunean bisita antolatu zen Gernikara. Bertan Miguel Angel ARANAZ alkate jaunak harrera egin zien udaletxean. Alkatearen harrera eta ongietorria jaso ondoren, eta Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrena ospatzen zela aprobetxatuz, Taldeko kideek “Gernika Bakearen Alde” Adierazpena sinatu zuten banan-banan. Oso pozik geratu ziren gure herrialdeko bakearen, balio demokratikoen eta oinarrizko giza-askatasunen defentsan babesa emateagatik. Halaber, Batzar-etxea eta Bakearen Museoa bisitatu zituten.

5.3.2. Eskualdeetako Lantaldeko goi-mailako Ordezkaritzak Euskadira egindako bisita, Michel Delabarre lehendakaria buru izanda (2007ko maiatzaren 9 eta 10a).

Eskualdeetako Lantaldeko lehendakari den Michel DELEBARRE jauna lau talde politikoen –EAP, EAS, ELDA, NEB-EA– ordezkaritza-taldearen buru izan zen eta Euskadi bisitatu zuten 2007ko maiatzaren 9 eta 10ean. Helburua terrorismoaren biktimekin, eskualdeko alderdi politiko nagusiekin eta Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin, Juan Jose IBARRETXE jaunarekin, biltzea zen.

Lantaldearen ordezkaritza horretan, lehendakariak gain, hurrengoak egon ziren: Luc VAN DEN BRANDE jauna, Eskualdeetako Lantaldeko lehendakariordea; Isidoro GOTTARDO jauna, Europako Alderdi Popularreko lehendakaria; Albert BORE jauna, Europako Alderdi Sozialistako kide eta Eskualdeetako Lantaldeko lehendakari ohia; Guido MILANA jauna, "Europako Liberalen eta Demokratien Aliantza" taldeko lehendakariordea; eta Patrick McGOWAN jauna, "Nazioen Europarako Batasuna - Aliantza Europarra" alderdiko kidea. Horrez gain, 8 laguntzaile ere izan ziren.

Bisita honen arrazoia ELren Osoko Biltzarrean hartutako konpromisoa izan zen. 2006an lehendakariaren gonbitea onartu zuen eskualde- eta toki-mailako politikari-ordezkaritza bidaltzeko Europar Batasunak bake-prozesuari eta demokraziaren babesari eman diezaiokeen babes-modua ikertzera.

Eskualdeetako Lantaldea bereziki hunkiturik agertu da ETAk egindako atentatu eta mehatxuen aurrean Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako tokiko politikarien aurka. Atentatu eta mehatxu horiek, Lantaldeko Osoko Biltzarrak 2003ko apirillean onartutako Ebazpenean jasotako moduan, "*mehatxua dira demokraziaren printzipioen aurka, Zuzenbide-estatuaren aurka eta Europar Batasunaren oinarrian dauden printzipioen aurka*". Eskualdeetako Lantaldeak atentatu terroristen biktime izandako senideak eta mehatxupean bizi diren tokiko eta eskualdeko euskal politikariak entzuteko ekitaldia antolatu zuen.

ELren ordezkaritzak topaketa izatea eskatu zuen terrorismoaren biktimekin elkarrekin. Bertara, hurrengoak joan ziren: Natividad RODRIGUEZ andrea, Fernando BUESA jaunaren alarguna; Amaia GURIDI, Diario Vasco egunkariko Finantza-zuzendariaren alarguna; Angel ALTUNA jauna, COVITE Biktime Elkarteko kide, eta Gorka LANDABURU jauna, bomba zeraman pakete batek larriki kalte zuen kazetaria. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Marixabel LASA andreak, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria, eta Jon LANDA jaunak, Giza Eskubideen zuzendaria, parte hartu zuten.

Juan Jose IBARRETXE lehendakariarekin izandako bilera oso probetxugarria izan zen Delabarre beraren hitzetan. Prest agertu zen "Eskualdeetako Lantaldeak konpromisoa

har dezan Erkidego-mailako bultzada sortzeko eta negoziazio-prozesuan ekarpena egiteko hura Euskadi eta Estatu espainiarraren mailan berriro planteatu bezain laster”.

Halaber, Eusko Legebiltzarreko lehendakari den Izaskun Bilbaorekin bilera egin zuen, ELn ordezkariak duten hiru alderdietako ordezkari politiko gorenenekin bezalaxe: EAJ-PNV, PSE-EE eta PP. Bilera Josu Jon IMAZ jaunarekin, Patxi LOPEZ eta Jesus LOZA jaunekin nahiz Carmelo BARRIO eta Leopoldo BARREDA jaunekin egin zuen.

Politikariekin biltzeaz gain, ELren ordezkari-taldeak CONFEBASKeke ordezkari nagusiekin biltzeko aukera izan zuen, hain zuzen ere Miguel LAZPIUR eta Jose Guillermo ZUBIA jaunekin. Bilera horren helburua enpresa-munduaren ikuspegia ezagutzea izan zen.

5.4. ELrekin zerikusia duten osoko bilkuretatik kanpoko jarduerak

5.4.1. “Komunikatzaile publikoak” Europan topaketan parte hartzea, Komunikazio Publikoko Elkarten Federazio Europarrak (KPEFE) antolatuta (2007ko urtarrilaren 24 eta 25a).

Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko Komunikazio-aholkulari den Agirretxea jauna Euskadi ordezkatzuz bertaratu zen Europan komunikatzeko moduari buruz egindako topaketa honetara. KPEFEk, Eskualdeetako Lantaldeak eta Europar Batasuneko Komunikazioko Zuzendaritza Nagusiak antolaturikoa izan zen. Topaketaren helburua botere publiko ezberdinetako komunikazioaren arduradun diren elkarteak zerrendatzea izan zen, horiek estatu mailakoak, eskualdekoak, tokikoak, legebiltzarreko biltzarrak, administrazioak edo zerbitzu publikoak izan alde batera utzita.

Mintegi honen helburua komunikazio publikoaren kultura sustatzea izan zen, Europar Batasunean. Jorrotutako gaiak hurrengo eremuen ingurukoak izan ziren:

- “Komunikazio publikoaren” kontzeptua definitzea.
- Europako estatu- eta toki-mailako zerbitzu publikoen ikuspegi alderatua.
- KPEFEren orientazio estrategikoak, lan-programa eta planninga azaltzea.
- Agintari europarrentzako komunikazio publikoaren onurak.

5.4.2. Bureau Aquitaine Europe delakoak antolaturiko topaketan parte hartzea (2007ko ekainaren 6a)

Akitania eskualdeak topaketa antolatu zuen Batasun Politiko Europarrari buruzko manifestu-proiektuari buruz eztabaidatzeko. Proiektu horren helburu politikoa eskualdeen Estatu Orokorretan aurkeztea zen, Batasun politikoaren eztabaida berriro abian jartzeko.

Manifestu horren oinarrian honako ideia dago: eraketa-proiektua beharrezkoa da eraikuntza europarrak aurrera egiteko; ez xede gisa bere horretan, baizik eta hazkunde, solidaritate eta Europar Batasunak munduan jarduteko duen gaitasun handiagoa lortzeko baliabide gisa. Aitzitik, testu arautzaile europarrari buruzko akordioa lortzea ezinezkoa da Europaren etorkizunerako funtsezkoak diren gaiak buruzko eztabaida bultzatu gabe: Zabalkundea, EBk mundu globalizatuan duen papera, gobernantza eta Batasun politikoa... Zentzu horretan, Akitania eskualdeak antolaturiko bilera eskualde ezberdinen topalekua izan zen Europan egunerokotasuna duten funtsezko gaien inguruan.

5.4.3. “Botere Legegilea duten Eskualdeak” Eskualde-arteko Taldearen bilera (2007ko ekainaren 7a)

Euskadi, Botere Legegilea duen eskualdea den heinean, ELren barruan sortutako Eskualde-arteko Taldeko kidea da. Helburua estrategiak koordinatzea da, organo horretan eskumen legegileak dituzten eskualdeentzat bereziki garrantzitsuak diren gaiak jorratzen direnean. Halaber, ELri esperientzia ematea ere bada helburu.

2007rako Lan Programak aurkeztu ziren, bai EELBrena (Europako Estatu Legegileetako Legebiltzarretako Lehendakarien Batzarra), bai REGLEGena (Botere legegilea duten eskualdeetako gobernuen sarea).

Halaber, Kontseilu Europarraren 2007ko ekainaren 21 eta 22ko bilerara eraman beharko litzatekeen mezu politikoari buruz eztabaidatu zen, Konstituzioaren Ituna berriro aktibatzeari dagokionez. Gainera, “Eskualde-demokraziaren Gutunaren” proiektua babestu zen, Kontseilu Europarraren esparruan prestaturikoa hura (zehazki Europako Toki eta Eskualde Agintaritzen Batzarrean, CPLRE). Gutxi barru eztabaidatu egingo da.

5.4.4. “Botere Legegilea duten Eskualdeak” Eskualde-arteko Taldearen bilera (2007ko azaroaren 29a)

Eskualde-arteko Taldeko txandako lehendakariak, Schausberger jauna (parlamentuko kidea eta Salzburgoko lehendakari ohia), Taldeak 2007an egingo zuen azkeneko bilera iragarri zuen. Bilera horretan REGLEGEn 2008rako lan-programa aurkeztu zen, eta EELBren programa hurrengo bileran aurkeztuko zela erabaki zen. Halaber, Eskualde-arteko Taldearen lan-programa eztabaidatu zen 2008rako: Schausberger lehendakariak egin zitezkeen jardueren zerrenda aurkeztu zuen, eta parte-hartzaileei ekarpenak idatziz egin zitzatela eskatu zien.

Agendako puntuetatik beste bat “Eskualde-demokraziaren Gutunaren” gaineko jarraipena egitearena izan zen. Van Cauwenberghek, ELn Valoriako kide eta Europako Kontseilu kide, gutun horrek ia 10 urtean egindako bidea deskribatu zuen, onartzeko izandako zailtasunekin batera. Izan ere, Erresuma Batua, Alemania edo Frantzia bezalako herrialdeek ezezkua eman diote hura onartzeari. Halaber, Europako

Kontseiluaren baitan txosten berria idatzi zuela argitu zuen. Europako Kontseiluko Eskualde eta Toki Gaietako ministro Batzarrean ateratako ondorioak ikusita, hura 2008an eztabaidatuko da gaia berriro aktibatzen. Gainera, gaiaren gaineko irizpen berria egin beharko litzatekeela adierazi zien ELko gainerako kideei.

5.4.5. Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkari den Jose M. MUÑOAREN esku-hartzea Enpresen Gizarte-erantzukizunaren gainean. Novia Salcedo Fundazioak antolatutako ekitaldia (2007ko azaroaren 28a)

“Local Meets Europe Event” delakoaren bigarren topaketaren esparruan, Novia Salcedo Fundazioak mintegia antolatu zuen Enpresen Gizarte-erantzukizunari buruzko VADEREGIO proiektu europarraren inguruan. Mintegiaren helburua proiektuaren emaitzak aurkeztea eta Elkartearen ezagutaraztea zen, agintari publikoak ari atxiki dakizkion.

Zentzu horretan, Kanpo Harremanetarako lehendakariaren ordezkariaren esku-hartzeak berrikuntzarako, sormenerako eta lortutako emaitzak garapen iraunkorari jarraiki ebaluatzeko gaitasunaren garapenaren alde egiteko enpresa-kudeaketako ereduak ezartzearen garrantzia azpimarratu zuen. Eskualdeetako Lantaldeko kide den heinean, Muñoa jaunak organo europar horrek gaiaren inguruan duen ikuspegia erakutsi ahal izan zuen. Zentzu horretan, toki- eta eskualde-mailako erakundeetako ordezkariak enpresen gizarte-erantzukizunaren kontzeptuari emaniko garrantzia azpimarratu zuen. Garrantzia hori Batzordearen Liburu Berdeari buruzko Irizpenean islatu zen: “Enpresen gizarte-erantzukizunerako esparru europarra sustatzea”.

Amaitzeko, Muñoa jaunak lehendakariorde den Idoia Zenarrutzabeitiaren hitzak hartu zituen. Horien bitartez, euskal enpresei gonbitea luzatu zien gizarte-jokabide arduratsuak martxan jartzeko eta erakundeek kontzeptuaren aplikazioan esku hartzeko garrantzia azpimarratu zuen. Muñoa jaunak, halaber, euskal kooperatiben kasua azpimarratu zuen. Horiek, lan-sozietate anonimoekin batera, aitzindariak dira horrelako portaera arduratsuak praktikan jartzearen gainean.

5.4.6. OPEN DAYS, Eskualdeen eta Hirien Aste Europarra (2007ko urriaren 8tik 11ra): Euskadik, Bruselako Ordezkaritzaren bitartez, “Atlantikoa lehiakortasun faktore gisa” multzoan parte hartu zuen. Horrek bi Batzar antolatu zituen Europa mailan, eta bertan Eusko Jaurlaritzako Garraio zuzendari den Palomino jaunak hizlari gisa parte hartu zuen.

“Open Day” delakoaren xedea eskualdeetako politiken garapenean parte hartzen duten jardule ezberdinak biltzea da, irakaskuntza eta praktika egokien gaineko ezagutzaren alde egitearekin batera. 2007ko Open Dayen gaia honakoa izan zen: “Egi bihurtu – Eskualdeek eta hiriek hazkuntza eta lana sortzen dute”. Ekitaldi horrek 5.400 parte-

hartzaile baino gehiago bildu zituen Belgikako hiriburuan, Europako 33 herrialdeko 212 eskualde eta hiritik etorrira. Antolatzaileek eginiko aurreikuspenak gainditu egin ziren.

Antolatu ziren 150 batzar eta mintegietatik, Euskadik, Bruselako Ordezkaritzaren bitartez, "Atlantikoa lehiakortasun faktore gisa" taldean parte hartu zuen. Haren buruan Kantabria egon zen eta Akitania (FR), Azoreak (PT), Behe Normandia (FR), Merseyside (UK) eta West Ireland (IRL) izan ziren bertan, Kantabria eta Euskadiz gain. Lantalde horren helburua itsasotiko garraioaren garrantzia azpimarratzea zen, garraio iraunkorraren adibide gisa eta eskualdeko lehiakortasun eta motor ekonomikoko adibide moduan.

Taldeak bi batzar antolatu zituen, eta bertan gaian aditu direnek parte hartu zuten. Lehenengoaren izenburua "Itsas-ekonomia iraunkorra sortuz" izan zen, eta Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzan egin zen. Bertan, Eusko Jaurlaritzako Garraio zuzendari den Iñigo Palomino jaunak esku hartu zuen. Hark euskal esperientzia agertu zuen itsasotiko garraioaren gaiaren inguruan. Batez ere Short Sea Shippinga eta itsasoko autopistak hartu zituen oinarritzat, zehazkiago Zeebrugge-Bilbo autopista. Bigarren batzarra, "Berrikuntza, itsas-sektorearen hazkunderantz" izenekoa, Kantabriak Bruselan duen Bulegoan egin zen.

5.5. Subsidiarotasunaren azterketa (2007ko urria-abendua). Mikel ANTON, Europako Gaietarako zuzendaria, Eusko Jaurlaritzaren jarrera koordinatzeko ardura izan duena izan da Subsidiarotasunaren azterketaren gaian **Europako Batzordearen proposamen arautzaileen bi multzotan. Jarrera horiek hurrengoan laguntzarekin landu dira: Energia Zuzendaritza, Energiaren Euskal Erakundea, Immigrazio Zuzendaritza, Lehendakariordetzako Araubide Juridikoko Idazkaritza Nagusia eta Bruselako Euskadiko Ordezkaritza.**

Subsidiarotasun- eta Proporzionaltasun-printzipioak garatzen joan dira Amsterdamgo Itunean (1997) sartu zirenetik aurrera. Ordudanik aurrera, Batasunaren erreforma ezberdinek ez dute bi kontzeptu horiek garatu besterik egin, egungo egoerara iritsi arte. Egun, Lisboako Ituna, onartzen bada, haratago doa, alerta goiztiarreko mekanismoa jarriz eta Eskualdeen Lantaldeari aukera emanez urraduragatik Justizia Auzitegira jotzeko.

Eskualdeen Lantaldearen Subsidiarotasunaren Azterketa-sarea Hirugarren Testera iritsi da aurten. Horren helburua Europako Batzordeak onartutako legezko eta legezko ez diren hainbat neurritan subsidiarotasun- eta proporzionaltasun-printzipioak aztertzea da. Eskualdeetako Lantaldeko kideek adierazitako lehentasunetatik abiatuz, aztertu ziren gaiak hiru izan ziren: "pakete energetikoa", migrazio-langileak eta osasun publikoa.

Ekitaldiaren hasieran planteatutako egutegiarekin bat etorri, hiru testak 2007a amaitu aurretik egingo lirake. Aitzitik, osasunari buruzko testa ezin izan da egin Europako Batzordeak atzerapena izan duelako neurri horiek hartzerakoan.

Eusko Jaurlaritzak badu esperientziarik horrelako testetan, parte hartzen duen bigarren aldia baita. Hain zuzen ere, 2006an Euskadik bere ekarpena egin zuen printzipio horiekiko Batzordeak erakusten duen errespetuaren gaian eta hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorretan.

Honakoa hirugarren edizioa da, eta testa egiteko baimendutako parte-hartzaile kopurua bikoiztu egin da (87 guztira). Berrikuntza handiena da Eusko Legebiltzarra parte hartzeko onartu dutela. Gogora dezagun sare horretan ez daudela bakarrik eskualdeetako gobernuak, eskualdeetako legebiltzar eta batzarrak ere agertzen direlako, toki- eta udal-mailako agintariekin batera.

Lankidetzak handia dago Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarren artean gai honetan, eta barne-prozedura ezarri da esfortzuak bateratzeko eta koordinazioan aritzeko. Izan ere, bi erakunde horietako bakoitzak Subsidiaritasuna aztertzeko bere txosten propioak aurkezten dizkio Eskualdeetako Lantaldeari. Subsidiaritasuna azterte behar duten dokumentuak aztertzeko eskudun den Eusko Legebiltzarreko batzorde bakoitzak gai bakoitzean arduradun den Eusko Jaurlaritzako zuzendarien agerraldia eskatu du, lehen eskutik Jaurlaritzak Subsidiaritasunaren azterketari buruz ateratako ondorioak ezagutze aldera.

5.5.1. “Pakete energetikoari” buruzko subsidiaritasun-testa

“Pakete energetikoa” deiturikoa eratzen duten dokumentuen gaineko Subsidiaritasunaren eta Proporzionaltasunaren azterketa urriaren 9an jarri zen martxan eta azaroaren 20an amaitu. Guztira, Eusko Jaurlaritzak 6 aste izan zituen bere azterketa egiteko. Horretarako, hurrengo parte-hartzea izan zuen: Energia eta Meategien Zuzendaritza, Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Lehendakariordetzako Araubide Juridikoko Idazkaritza Nagusia eta Bruselako Euskadiko Ordezkaritza.

Aztertutako paketearen helburua energiaren eta gasaren barne-merkatua sortzea zen, eta hurrengo dokumentuak bildu zituen:

COM(2007) 530 azkena
EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN proposamena,
Energiaren Arautzaileen Lankidetzak Agentzia sortzeko.

COM(2007) 528 azkena
EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ZUZENTARAU
proposamena. Horren bitartez, elektrizitatearen barne-merkatutarako arau
komunei buruzko 2003/54/CE Zuzentaria aldaraziko zen.

COM(2007) 531 azkena
EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ARAUDI proposamena. Horren bitartez, elektrizitatearen mugaz haraindiko merkataritza egiteko sarera iristeko baldintzei buruzko 1228/2003 Araudia (EE) aldaraziko zen.

COM(2007) 529 azkena
EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ZUZENTARAU proposamena. Horren bitartez, gas naturalaren barne-merkatutarako arau komunei buruzko 2003/55/CE Zuzentaria aldaraziko zen.

COM(2007) 532 azkena
EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ARAUDI proposamena. Horren bitartez, gas naturalaren garraio-sareetara iristeko baldintzei buruzko 1775/2005 Araudia (EE) aldaraziko zen.

Orokorrean, dokumentuak uste izan zuen proposamen legegileak betetzen zituela Subsidiaritasun- eta Proporzionaltasun-printzipioak. Euskadik gai horretan eskumen zabalak dituen bitartean, EBk ez du lege-gaitasunik estatu kideetako energia-politiketan jarduteko. Aitzitik, jardun dezake merkatu bakarraren gainean dituen eskumenean bitartez. Aztertutako beste alderdi bat subsidiaritasuna betetzearen motibazioarena da. Bertan, Eusko Jaurlaritzak uste izan du justifikazioa ez dela nahikoa izan, eta ez direla kontuan izan eskualdeetako nahiz tokietako alderdiak.

Eusko Legebiltzarreko Industria, Merkataritza eta Turismo Batzordeak gonbitea luzatu zion Europako Gaietarako zuzendari den Anton jaunari eta Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari den Zabala jaunari, azterketen ondoren ateratako ondorio nagusiak azal zituzten. Aurkezpen horretan Anton jaunak arreta eman zion Testak hartzen duen esparru orokorrari, Zabala jaunak aztertutako araudiaren berriazko edukia argitu zuen bitartean.

5.5.2. Langile etorkinen gaineko subsidiaritasun-testa

Bigarren azterketa horretarako, Europako Gaietarako Zuzendaritzak hurrengoan parte-hartzea izan zuen: Marro jauna, Immigrazio zuzendaria; Lehendakariordetzako Araubide Juridikoko Idazkaritza Nagusia eta Bruselako Euskadiko Ordezkaritza. Azterketa azaroaren 12an jarri zen martxan, eta 2008ko urtarrilaren 11n amaitu zen.

Subsidiaritasunaren azterketapean jarri beharreko immigrazioaren alorreko lege-neurri berriak 4 izan ziren. Aitzitik, horietako bat gazteleraz ez zegoenez, Gobernuak hiru dokumentu aztertu zituen. Neurri berri horien guztien helburua immigrazioaren alorreko benetako politika komuna martxan jartzea da. Izan ere, orain arte, Tampereko Europako Kontseiluan (1999) estatu kideek adierazitako asmo onak adierazita ere, immigrazioaren alorreko jarduerak estatu kide bakoitzaren eskuetan geratu ziren. Aztertutako dokumentuak hurrengoak izan ziren:

(COM(2007) 248 azkena)
BATZORDEAREN KONTSEILUARI, EUROPAKO PARLAMENTUARI,
EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE LANTALDEARI ETA
ESKUALDEETAKO LANTALDEARI helarazitako komunikazioa, migrazio
zirkularraren eta mugikortasun-elkarteei buruzkoa Europar Batasunaren eta
hirugarren herrialde batzuen artean

(COM(2007) 249 azkena)
EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ZUZENTARAU
proposamena. Horren bitartez, hirugarren herrialde batzuetako egoiliar ilegalen
enpresaburuei aplikatzen diren zigorrek ezarriko ziren.

(COM(2007) 637 azkena)
KONTSEILUAREN ZUZENTARAU proposamena, kualifikazio altuko hirugarren
herrialde batzuetako langileen sarrera- eta egoitza-baldintzak ezartzen dituen.

Orokorrean, Eusko Jaurlaritzak landutako dokumentuak beharrezkotzat eta
desiragarritzat jo zuen eremu horretan batasun mailako jardura garatzea.
Orokorrean, Subsidiarioritasun- eta Proporzionaltasun-printzipioak errespetatzen
zirela adierazten zuen. Aitzitik, uste izan zen Batzordeak ez zituela behar beste
kontuan hartzen toki- eta eskualde-mailako alderdiak, ez proposamenak idatzi
aurretik kontsulta egiterakoan, ez horien eragina ebaluatzerakoan.

Kasu honetan, Eusko Legebiltzarreko Gizarte Ekintza Batzordea izan zen Anton
jaunari eta Immigrazio zuzendari den Marro jaunari gonbitea luzatu ziena egindako
azterketen ondorio nagusiak azaltzeko. Aurreko agerraldian bezala, Europako
Gaietarako zuzendariak Subsidiarioritasunaren azterketak zein testuingurutan
kokatzen diren planteatu besterik ez zuen egin, Marro jaunak bere sailak ateratako
ondorio nagusiak azaldu zituen bitartean.

5.6. Euskadiko mintegiak eta ekarpen bereziak

Eskualdeetako Lantaldeak bere kideei zuzenduta antolatzen dituen mintegien,
eztabaida-foroen eta galdeketen helburua Batzordearen aldetik irizpenaren xede
izango diren gai konplexuenak sakontasunez aztertzea da, eta, beraz, jarrera hartu
behar izango duen gaiei buruzko informazio gehiago eskuratzea eta hobeki prestatzea.
Hurrengoak azpimarratuko genituzke:

**5.6.1. Eusko Jaurlaritzaren ekarpena hurrengo gaia duen Irizpen
Landuaren inguruan: “Hiri eta eskualdeen berregituratzean
eraginkorrak diren estrategiak”, LEko ECOS Batzordearena (2007ko
urtarrilaren 31).**

Eusko Jaurlaritzak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren bitartez, bere
esperientzia jarri zuen Eskualdeetako Lantaldearen ECOS Batzordearen (Politika
Ekonomikoa eta Soziala) “Hiri eta eskualdeen berregituratzean eraginkorrak diren

estrategiak” gaiari buruzko Irizpen Landuaren inguruan. Euskadik bizi izandako berregituratze-prozesuari buruzko galdeketa helarazi zuen. Ekarpene hori kokatzen den testuinguruan argi geratzen da erakunde publikoek nahiz sektore pribatuak ezin dutela beren kabuz bakarrik berregituratzearen erronka konplexua konpondu.

Ondorioz, ekarpen honen helburua Europako Batzordeak Eskualdeetako Lantaldeari egindako kontsultari erantzutea zen, eskualdeetako eta tokietako esperientziei buruzko informazio lortzeko gai honetan eta Europako etorkizuneko testu arautzailea lantzeko balioko duten gomendio politikoak eskatzeko. Horien gainean hausnarketa egiten hasi da jada.

5.6.2. ELren D “Deszentralizazio” Planaren egoerari buruzko II. txostenaren prestakuntzan izandako ekarpena (2007ko apirilaren 10a).

Eusko Jaurlaritzak 2006ko azken seihilekoan eta 2007ko lehenengo seihilekoan zehar landutako D “Deszentralizazio” Planeko jardueren zerrenda bidali zion ELko CONST Batzordeko lantaldeari.

D “Deszentralizazio” Plana, aldi berean, Batzordeak 2005ean martxan jarritako D Planaren barruan kokatzen da. Hura Europaren etorkizunari buruzko elkarriketa sakona martxan jartzeko pentsatu zen, hausnarketarako aldi.

Horri dagokionez, ELk ekarpen aktiboa izan zuen plan horretan, toki- eta eskualde-mailako baliabide guztiak erabiliz benetako elkarriketa pizteko. Haren ezaugarria herritarrekiko hurbiltasuna litzateke. 2006ko abenduan, ELk “Europa Eskualdeen eta Hirien bitartez Komunikatuz” izeneko foilettoa argitaratu zuen. Bertan, Europako eskualde eta hiriek garatutako jarduera ugariei buruzko lehenengo zerrendaren emaitzak aurkeztu ziren. Argi geratu zen deszentralizatutako ekimenak oso biziak eta anitzak zirela.

Ildo horretatik jarraituz, 2006an Kontseilu Europarrak hausnarketarako aldia luzatzeko hartutako erabakiaren ostean, Eskualdeetako Lantaldeak Europako Batzordearekin lankidetzan jarraitu zuen, D “Deszentralizazio” Planaren gaiaren egoerari buruzko 2. txostena argitaratze aldera. Horri dagokionez, ELk azpimarratu zuen eskualdeetako taldeek egindako praktika egoki horiek sartzeak nortasun europarrari ekarpena egitea esan nahiko lukeela.

5.6.3. Eusko Jaurlaritzaren ekarpena hurrengo gaia duen Irizpen Landuaren inguruan: “Emakume Etorkinak Europar Batasunean”, LEko ECOS Batzordearena (2007ko abuztuaren 27an).

Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, Eskualdeetako Lantaldeko ECOS Batzordearen “Emakume Etorkinak Europar Batasunean” gaiari buruzko Irizpen Landua lantzen lagundu zuen. Horretarako, emakume etorkinek

Euskadiko gizarte-sarean izandako integrazioaren adibidea bidali zuen. Adibide horretan integrazio horren alderdi positiboak eta arazoak azpimarratu ziren.

Ekarpen honen helburua landutako irizpenean Euskadin izandako esperientzia sartzea izan zen, Eskualdeetako Lantaldeko kide den heinean. Horrela, Europar Batasunari mezu politiko argiak emateaz gain, ELko kideek beren hiri eta eskualdeetan ezagututako esperientzia batzuk agerian utzi dira.

5.6.4. COTER Batzordearen mintegia “Europako lurralde-lankidetzak: lurralde lankidetzako talde europarrak eta haien etorkizuneko itxaropenak” gaiari buruz (2007ko uztailaren 6a)

Euskaditik Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako zuzendari den Mikel Anton jauna eta PLEko idazkari orokor den Rafael Hueso jauna joan ziren. Azken horrek, EL eta Galiziako Xunta zoriondu ondoren horrelako mintegiak antolatzeagatik, ELEE bezalako baliabide juridikoak izatearen garrantzia azpimarratu zuen Mugaz gaindiko Lankidetzak garatzeko. Hala eta guztiz ere, zalantzak agertu zituen estatuak etorkizuneko ELEEen eraketan izango duten paperaren gainean. Halaber, aukera aprobetxatu zuen horrelako Lankidetzak sustatzeko baliabide juridikoen ohiko falta zoritxarrekin jotzeko, 1980ko Madrilgo Esparru-hitzarmenetik aurrerapauso gutxi eman zirela aipatuz. Zentzu horretan, ELEE “aldaketa garrantzitsua izatea” espero zuen.

Mintegian Eskualdeetako Lantaldearen lan-programa aurkeztu zen hurrengo inguruan: Eskualde Lankidetzarako Elkarte Europarrei (ELEE) buruz 2007-2008 aldian; kasu espainiarrean ELEEei buruzko 1082/2006 Araudia garatu eta gauzatzeari buruzko arazoak, eta lurralde-lankidetzako baliabide juridiko berriaren helburu eta itxaropenak.

5.6.5. CONST mintegia Tenerifeko hurrengo gaiaren gainean: "Eskualdeen eta hirien papera migrazio-fluxuen kudeaketan" (2007ko urriaren 30a).

CONST Batzordeak (Konstituzio Gaietako eta Gobernantza Europarrei Batzordea) hurrengo gaiaren gaineko bilera egin zuen Adejen (Tenerife): “Eskualdeen eta hirien papera migrazio-fluxuen kudeaketan”.

Hitzaldiaren helburu nagusia tokiko eta eskualdeko erakundeek migrazio-fluxuen kudeaketan duten papera nabarmentzea eta gai horretako tokiko eta eskualdeko ekintza eta ekimenen praktika egokiak identifikatzea zen.

Hitzaldira ez ziren bakarrik batzordekideak joan. Europako erakundeetako ordezkariak eta Afrika iparraldeko eta eremu atlantiarreko etorkin-igorle diren eskualdeetako ordezkariak ere gonbitea luzatu baitzitzaien, alderdi ezberdinen artean elkarriketa ezartze aldera.

6. Eskualdeetako Lantaldeari buruzko ondorioak

Orokorrean, hurrengo emaitzak ikusi ditugu:

Urtea	Irizpen-kopurua	Sailei egindako iritzi-eskaerak	Jasotako erantzunak	Parte-hartze portzentajea	Zuzenketak izan duen iritzi-eskaera portzentajea	Jasotako zuzenketa-kopurua	Aurkeztutako zuzenketa-kopurua	Onartutako zuzenketa-portzentajea
2006	43	48	41	% 85	% 56	71	54	% 87
2007	43	59	44	% 75	% 45	80	70	% 79

6.1. Funtzionamendua

2007an, Eskualdeetako Lantaldeak 43 irizpen-proiektu landu zituen, 2006an aztertutako irizpen-kopuru berdina. Testu arautzaile kopuru berdina izan arren, iritzi-eskaera kopuruak gorantz egin du aurten, 2006ko 48 eskaeretatik 2007ko 59etara igaro garelako. Hazkundearen arrazoia aztertutako irizpen-proiektuen izaera da, sail ezberdinetako gaiak jorratzean.

Ondorioz, ikusi ahal izan dugu sailek emandako erantzun kopurua iaz baino altuagoa izan dela: 44 erantzun iaz jasotako 41en aldean. Zentzu horretan, Eskualdeetako Lantaldearen lanean izandako **parte-hartze maila ona izan dela** sumatu dugu, % 75eko erantzun-mailarekin.

6.2. Balorazioen kalitatea

Jasotako erantzun-motari dagokionez, zuzenketa izandako iritzi-eskaera portzentajeak beherantz egin du pixka bat, 2006ko % 56tik % 45era igaroz. Horrek esan nahi du aztertutako irizpen-proiektuari dagokionez Sailaren adostasuna adieraziz izandako erantzun-kopuruak gorantz egin duela.

Zuzenketak izandako erantzunek beherantz egin badute ere, jasotako zuzenketa-kopuruak gorantz egin du. Hain zuzen ere, 2007an sailek guztira 80 zuzenketa idatzi zituztela ikusi ahal izan dugu, aurreko urteko 71n aldean. Aurkeztutako zuzenketa-kopuruari dagokionez, hura ere aurreko urtekoa baino altuagoa izan da: 70, 2006ko 54en aldean.

Alderaketa eginez gero, jasotako zuzenketen % 88a aurkeztu egin da, 2006an landutako zuzenketen % 76a izan zen bitartean. Datu horiek iaz hasitako joeran

berriro aurrera egin dela islatzen dute. Horren arabera, 2005ean aurkeztutako zuzenketa-portzentajearen aldean hazkundera izan zen, barruko antolamenduan eta koordinazioan hobekuntzak izateagatik eta Europako beste eskualde batzuen laguntza lortzeko behar zen lobbya eraginkorragoa izateagatik.

Azkenik, 2007an onartutako zuzenketa-kopuruak nahiko altua izaten jarraitu du, 2006an erregistraturikoaren aldean beherakada arina izan arren: % 87a 2007ko % 79aren aldean.

6.3. Irizpen-proiektuen tipologia

Eusko Jaurlaritzak irizpen-proiektu ezberdinetan islaturiko hainbat gairen inguruan eman du iritzia, eta bere politikak aldarazi ditu zuzenketen bidez hainbat gaitan. Horien artetik hurrengoak azpimarratuko genituzke: Europar Integrazioa eta Erakundeak; Eskualde- eta Kohesio-politika; Garraioak; Portuak, Lurralde Antolamendua; Immigrazioa; Gizarte-ongizatea; Telekomunikazioak; Informazioaren gizartea; Laneko segurtasuna eta osasuna; Ingurumena; Hezkuntza; Lehiakortasuna eta Industria-politika; Portuak eta Lurralde Antolamendua.

6.4. Beste eskualde batzuetako zuzenketak babestea

Zuzenketa propioak lantzeaz gain, Euskadik beste eskualde batzuk aurkeztutako zuzenketak babestu ditu eta haiekin zuzenketak aurkeztu ditu, batez ere Autonomia Erkidego espainiarrekin nahiz Europako Liberalen eta Demokraten Aliantza (ELDA) alderdikoekin. Gogorarazi nahi dugu zuzenketak aurkezteko beharrezkoa dela gutxienez ELko kideen 5 babes izatea, hura landu duen kidearenaz gain. Horrela, Euskadik 161 zuzenketa jaso zituen, eta horietatik 116 babestu eta elkarrekin aurkeztu zituen.

6.5. Eusko Jaurlaritzaren esku-hartze bereziak Eskualdeetako Lantaldearekin zerikusia duten ekintza eta jardueretan

José María MUÑOAK, Eskualdeetako Lantaldeko ELDA talde politikoko lehendakariorde gisa, esku hartu zuen hurrengo komisario eta Europa mailako agintarien aurrean:

- **BARROT jauna, Europako Batzordeko lehendakariordea eta Garraioetako komisarioa, 2010ari begira garraioen politika europarrari buruz.**
- **JUNCKER jauna, Luxenburgoko lehen ministroa,** Europar Batasunaren erreforma-prozesua berriro aktibatzeari buruz eta prozesu horretan egin beharreko hurrengo urratsei buruz.
- **PIEBALGS jauna, Energiaren komisario europarra,** EBko energia-politika berrian planteatutako helburu berrien inguruan.
- **ORBAN jauna, Eleaniztasunerako komisario europarra,** Europar Batasunean hizkuntza-aniztasunak duen garrantziaren inguruan.
- **BORG jauna, Arrantza eta Itsas Gaietako komisario europarra,** etorkizuneko Itsas-politikarako Batzordearen Ekintza-planari buruz.

Izaskun BILBAOK, Eusko Legebiltzarreko lehendakari eta EELBko lehendakari gisa, **Europako Batzordeko lehendakariorde den WALLSTRÖM andrearen** aurrean hitz egin zuen, "elkarrizketa egituratuen" esparruan. Eskualdeetako Lantaldeak antolaturikoa izan zen.

Euskadik hurrengo ezohiko ekitaldiak antolatu zituen:

- **Eskualdeetako Lantaldeko goi-mailako ordezkariaren bisita,** burutzat DELEBARRE lehendakari jauna izanez. Bisita horren arrazoia lehendakariak aurreko urtean egindako gonbitea izan zen. Helburua ELk Euskadiren egoera lehen eskutik ezagutzea zen, Europatik bake-prozesua nola babes zitekeen ikertzearekin batera. Horretarako, Lantaldeko talde politiko europarreko ordezkari gorenenek elkarrizketa izan zuten EAJrekin, PSErekin eta Euskadiko PPrekin; terrorismoaren biktima-elkarteen ordezkariarekin, lehendakariarekin, Eusko Legebiltzarreko lehendakariarekin eta CONFEBASKeko kideekin.
- **ELko ELDA talde politikoaren ezohiko bilera Bilbon.** ELDA taldeko kideek hurrengoan agerraldia izan zuten: IMAZ jauna, EAJko lehendakari eta ELDA talde politikoaren kide fundatzailea; ARESO jauna, Bilboko Udaleko zinegotzia; GABIOLA jauna, Bilboko Portuko Agintaritzako Eragiketa zuzendaria, eta ARANOZ jauna, Gernikako alkatea.

Euskadik oso bilkuretatik kanpoko hurrengo jardueretan parte hartu zuen:

- **“Komunikatzaile publikoak”** Europan topaketa, Komunikazio Publikoko Elkarteen Federazio Europarrak antolatua (KPEFE).
- **Erromako Hitzarmena sinatu zenetik 50. urteurrena ospatzeko osoko bilkura.**

- **Bureau Aquitaine** Europe delakoak antolaturiko topaketa, Batasun Politiko Europarrari buruzko adierazpena eztabaidatzeko.
- **“Botere Legegilea duten Eskualdeen edo Legebiltzarren”** ordezkari diren ELko kideek eratutako **Eskualde-arte taldearen** ezohiko bi bilera.
- Enpresen Gizarte-erantzukizunari buruzko esku-hartzea, Novia Salcedo Fundazioak antolatuta.
- **OPEN DAYS** deiturikoak. Horien gaia honakoa izan zen: “Egi bihurtu – Eskualdeek eta hiriek hazkuntza eta lana sortzen dute”. Euskadik “Atlantikoa lehiakortasun faktore gisa” taldean parte hartu zuen.
- **Subsidiariorotasun-printzipioaren azterketari buruzko hirugarren testa**, EBren lege-proposamen berrien inguruan gasaren eta energiaren barne-merkatua lortzeari buruz, eta Europar Batasuneko immigrazio politikaren inguruan.

Euskadik hurrengo dokumentuak lantzen lagundu zuen:

- ELren ECOS Batzordearen **“Hiri eta eskualdeen berregituratzean eraginkorrak diren estrategiak”** gaiari buruzko irizpen landua.
- ELren D **“Deszentralizazio” Planaren** gaiaren egoerari buruzko II. txostena.
- ECOS Batzordearen **“Emakume etorkinak Europar Batasunean”** gaiari buruzko irizpen landua.

Halaber, hurrengo mintegietan parte hartu zuen:

- ELko COTER Batzordeak antolaturiko hurrengo mintegia: **“Europako lurralde-lankidetzako talde europarrak eta haien etorkizuneko itxaropenak”**.
- ELko CONST Batzordeak antolaturiko hurrengo mintegia: **“Eskualdeen eta hirien papera migrazio-fluxuen kudeaketan”**.

I. ERANSKINA

LURRALDEETAKO LANTALDEAREN IRIZPEN-PROIEKTUEN ZERRENDA OSOA

CDR 013/07 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Europar Batasunaren estrategia bat estatu kideei alkoholarekin zerikusia duten kalteak gutxitzen laguntzeko.

CDR 034/07 azkena. Ekimen-irizpena. Toki- eta eskualde-gobernua Ukrainian eta EBren eta Ukrainiaren arteko lankidetzaren garapena.

CDR 057/07 azkena. Ekimen-irizpena. Aukera-berdintasuna eta kirola.

CDR 064/07 azkena. Migrazioari buruzko planteamendu orokorra urtebete igarota: Politika orokor europarrerantz migrazioen gaian. Europar Batasunean hegoaldeko itsas-mugen kudeaketa sendotzea. "Migrazioari buruzko planteamendu orokorra" aplikatzea Europar Batasunarekin muga egiten duten ekialdeko eta hego-ekialdeko lurraldeetan.

CDR 068/07 azkena. Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Laneko kalitatea eta ekoizgarritasuna hobetzea: Batasuneko osasun- eta segurtasun-estrategia lanean (2007-2012).

CDR 083/07 azkena. Liburu berdea – Ikerketako esparru europarra: ikuspegi berriak. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Europa osoan ikerketa-erakundeen eta industriaren artean ezagutzak transferitzea hobetzea: berrikuntza irekia eranstea – Lisboako Programa aplikatzea.

CDR 084/07 azkena. Batzordearen komunikazioa. Hobeto zahartu informazioaren gizartean. i2010 ekimena: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiai buruzko ekintza-plana eta zahartzea.

CDR 085/07 azkena. Landutako irizpena. Eskualdeetako eta tokiko erakundeen ekarpena Europar Batasunak garapen iraunkorrerako garatutako estrategian.

CDR 096/07 azkena. Liburu berdea: satellite bidezko nabigazioaren aplikazioak.

CDR 097/07 azkena. Kohesio ekonomiko eta sozialari buruzko laugarren txostena.

CDR 110/07 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Munduko beroketa 2 °C-ra mugatzea; 2020ra bitarte eta ondoren behar diren neurriak.

CDR 111/07 azkena. Batzordeak Kontseilu Europarrari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Energia politika bat Europarentzako. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Gasaren eta elektrizitatearen barne-merkatuko aurreikuspenak. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Elektrizitate-ekoizpen iraunkorra erregai fosiletatik abiatuz: 2020tik aurrera zerotik gertu kokatzen diren isurketak dituzten ikatzeko zentral elektrikoak lortzea. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Bioerregaiari buruzko txostena. Bioerregaiak eta beste erregai berriztagarri batzuk Europar Batasuneko estatu kideetan erabiltzeko buruz egindako aurrerapenen gaineko txostena. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Elkarren arteko konexioen lehentasunezko plana. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Teknologia Energetikoaren Europako Plan Estrategikorantz. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Energia berriztagarrien lan-programa. XXI. mendeko energia berriztagarriak: iraunkorragoa den etorkizunaren eraikuntza. Batzordeak Kontseiluari

eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Liburu Berdearen jarraipenerako ekintza. Elektrizitate berriztagarriaren aurrerapenari buruzko txostena.

CDR 118/06 azkena. Irizpen landua. Europako kohesio-politikaren palanka-efektua.

CDR 118/07 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Lurraldeetako Lantaldeari helarazitako Liburu Berdea. Klima-aldaketara egokitzea Europan: jarduera-aukerak EBrentzat.

CDR 119/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Liburu Zuriaren erdi-bideko berrazterketa 2010erako Europako garraio-politikaren gainean.

CDR 127/07 azkena. Irizpen Landua. Hezkuntzaren eta kontzientziazio-neurrien papera garapen iraunkorraren sustapenean.

CDR 172/07 azkena. Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Kulturarako agenda europarrari buruzko komunikazioa, globalizatzeko bidean dagoen munduan.

CDR 182/06 azkena. Zuzentarau-proposamena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren partetik. Kontseiluaren 89/665/CEE eta 92/13/CEE zuzentaruak aldaraztea kontratu publikoak esleitzearen gain errekurtsoen prozeduren eraginkortasuna hobetzei dagokionez.

CDR 235/06 azkena. Liburu berdea: gardentasunaren aldeko ekimen europarra.

CDR 236/06 azkena. Batzordearen komunikazioa. Haurren Eskubideei buruzko Europar Batasunaren Estrategiarantz.

CDR 258/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Europar Batasunaren itsas-politikanantz: Ozeanoen eta itsasoen gaineko ikuspegi europarra.

CDR 272/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Banda zabalean desorekak gainditzea. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Administrazio Elektronikoari buruzko i2010 Ekintza-plana: Europan administrazio elektronikoa arintzea guztion onurarako.

CDR 273/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari helarazitako komunikazioa. Urrats berriak Teknologiaren Institutu Europarra sortze aldera.

CDR 292/07 azkena. Europako Batzordearen 2008rako Lan-programari buruzko ebazpena.

CDR 316/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Pestiziden erabilera iraunkorari buruzko gaikako estrategia.

CDR 321/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Lurzorua babesteko gaikako estrategia.

CDR 334/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari helarazitako komunikazioa. Gazteen parte-hartzea eta informazioa. "Europako gazteriarentzako bultzada berria" Liburu Zuriaren jarraipena.

CDR 335/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari eta Europako Parlamentuari helarazitako komunikazioa. Eraginkortasuna eta berdintasuna hezkuntzako eta prestakuntzako sistema europarretan. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Gomendio-proposamena

etengabeko ikaskuntzarako kalifikazioen esparru europarra sortzeari buruz.

CDR 338/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Lisboako Estrategiari buruzko batasuneko programaren aplikazioa. ETEen hazkundea finantzatzea; balio europarra eranstea.

CDR 339/06 azkena. Ekimen-zuzentaraua. Merkatu bakarraren etorkizuna, gizartearen balantzea barne.

CDR 340/06 azkena. Eskualdeetako Lantaldearen irizpen landua hurrengo gaiaren gainean: "Berregituraketetan aurrea hartzearen eta laguntzearen eskualdeetako eta tokiko estrategien arrakastaren faktoreak".

CDR 341/06 azkena. Batzordearen komunikazioa. Europako etorkizun demografikoa: erronka aukera bihurtu.

CDR 345/06 azkena. Europako Parlamentuaren kontsulta. Etxebizitzaren politika eta eskualde-politika.

CDR 383/06 azkena. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Gobernantza garapen-politikari buruzko adostasun europarrean. Europar Batasunaren ikuspegi harmonizaturantz.

CDR 384/06 azkena. Batzordeak Legebiltzarrari eta Kontseiluari helarazitako komunikazioa. Zabalkunde-estrategia eta 2006-2007ko erronka nagusiak, EBk kide berriak sartzeko duen gaitasunari buruzko eranskin berezia barne.

CDR 385/06 azkena. Batzordeak Legebiltzarrari eta Kontseiluari helarazitako komunikazioa. Zabalkunde-estrategia eta 2006-2007ko erronka nagusiak, EBk kide berriak sartzeko duen gaitasunari buruzko eranskin berezia barne.

CDR 386/06 azkena. Batzordeak Legebiltzarrari eta Kontseiluari helarazitako komunikazioa. Zabalkunde-estrategia eta 2006-2007ko erronka nagusiak, EBk kide berriak sartzeko duen gaitasunari buruzko eranskin berezia barne.

CDR 396/06 azkena. Irizpen landuaren proiektua. Emakume etorkinek Batasunean bizi duten egoera.

CDR 397/06 azkena. "Lege hobeak ematea" 2005 txostena. "Lege hobeak eman" programaren azterketa estrategikoa Europar Batasunean. Batzordearen lan-dokumentua. Esparru arautzailea sinpletzeko strategiari buruzko eboluzioaren lehenengo txostena. Batzordearen lan-dokumentuak: administrazio-kostuak neurtu eta administrazio-kargak arindu Europar Batasunean. Europar Batasunean Administrazio-kargak arintzeko Ekintza-plana. "Lege hobeak ematea" 2006 txostena.

CDR 398/06 azkena. Ekimen-irizpena Europar Batasunaren erreforma-prozesua berriro aktibatzei buruz 2007ko ekainaren 21 eta 22ko kontseilu europarrari begira.

CDR 405/05 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudi-proposamena Batasuneko airetiko zerbitzuak ustiatzeko neurri komunak izateari buruz. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Europako aireportuetako gaitasuna, eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzeko ekintza-plana: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irizpen-proposamena aireportuetako tasen gainean. Batzordearen txostena 1996ko urriaren 15eko Kontseiluko 96/67/CE Irizpena aplikatzeari buruz.

CDR 406/06 azkena. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudi-proposamena Batasuneko airetiko zerbitzuak ustiatzeko neurri komunak izateari buruz. Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta

Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa. Europako aireportuetako gaitasuna, eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzeko ekintza-plana: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren irizpen-proposamena aireportuetako tasen gainean. Batzordearen txostena 1996ko urriaren 15eko Kontseiluko 96/67/CE Irizpena aplikatzeari buruz.

CDR 407/06 azkena. Batzordearen komunikazioa. Eskualdeak klima-aldaketan.



II. ERANSKINA

BARNE-ARAUDIAREN ALDARAZPEN NAGUSIAK

Eskualdeetako Lantaldearen barne-araudia aldarazi egin zen eta indarrean jarri 2007eko urtarrilaren 31n. Barne-araudian berrazterketaren ondotik sartutako aldarazpen nagusiak hurrengoak dira:

- Kideetako bat ordezkatua izan daiteke lantaldearen bilera batean edo Mahaiak baimendutako beste edozein bileratan. Aukera hori zabaldu egiten zaie orain bere talde politikoko edo eskualde-arte taldeko kideei edo ordezkoei (5. artikulua).
- Talde politikoen eraketa-testuak Aldizkari Ofizialean argitaratzeari uztea (9. artikulua);
- Batzarraren quorumaren ziurtapena edo bozketaren errepikapen-eskaera egin ahalko dira orain kideetako batek alde aurretik eskatuz gero. Baldintza izango da gutxienez hamabost kidek eskaera horren aldeko botoa ematea (21. eta 22. artikulua);
- Hala eta guztiz ere, saioan egileek edo beste kideren batek defendatu ez duten zuzenketa osoko bilkuraren bozketapean jarriko da (24. artikulua);
- Amaierako bozketa batean emandako botoen gehiengo absolutua eskuratzen ez duen irizpena kasuan kasuko batzordeari itzuliko zaio edo bertan behera utzi (24. artikulua);
- Prozedura sinplifikatuaren esparruan, hogeita hamabi kidez edo behar bezalako gaitasuna duten ordezkarietaz gain, talde politiko batek zuzenketa aurkezteko aukera izango du hemendik aurrera (26. artikulua).
- Mahaiaren osaketa ez da aldatzen, Bulgaria eta Errumania ordezkatuko dituzten lau kide berriren sarreragatik salbu (28. artikulua);
- Batzordeek proposatuz gero, Mahaiak bere urteko lan-programa onartuko du (35 c) artikulua);
- Mahaiko quoruma egiaztatu egingo da kideetakoren batek horrelakorik eskatzen badu eta sei kidek gutxienez eskaera horren alde egiten badu. Quoruma egiaztatze eskaerarik ez badago, edozein bozketa balioduna izango da, bertaratzen den pertsona kopurua alde batera utzita. Quorumik ez dagoela egiaztatuko balitz, Mahaiak erabakia hartzen jarraitu ahalko du, baina bozketak hurrengo bilerara arte luzatuko ditu. (36. artikulua);
- Irizpen eta txosten osagarriak ezabatu egiten dira (39. artikulua);
- Irizpenen eta txostenen edukiari eta egiturari buruzko xedapenak sinpletu egiten dira (50. artikulua), eta hizlarien izendapena arautzen dutenak xehetasun gutxiagokoak dira (51. artikulua).
- Batzordeetako quoruma egiaztatu egingo da kideetakoren batek horrelakorik eskatzen badu eta hamar kidek gutxienez eskaera horren alde egiten badu. Quoruma egiaztatze eskaerarik ez badago, edozein bozketa balioduna izango da, bertaratzen den pertsona kopurua alde batera utzita. Quorumik ez dagoela egiaztatuko balitz, batzordeak bozketarik behar ez duten eguneko gai zerrendako gainerako puntuak aztertu ahalko ditu, eta hurrengo bilerarako utziko ditu etenda geratu diren eguneko gai-zerrendako puntuen gaineko hausnarketak eta bozketak (54. artikulua);
- Batzorde batek irizpen baten bozketa eten badu, jada onartutako artikulua berririo bozkatzea erabaki ahalko du testu osoa irakurtzen den saioan (55. artikulua);
- Salbuespeneko egoeretan, batzordeburu batek idatzizko prozedura aukeratu ahalko du bere batzordearen funtzionamenduari buruzko gaietarako (58. artikulua);

- ELko IEAeri eta KEAeri emandako botereak aldarazi egiten dira (62. artikulua);
- Aurrerantzean, ELren eskumenen esparruaren barruan, Mahaiak lankidetzakordioak sinatu ahalko ditu Europar Batasuna ez den beste erakunde batzuekin (65. artikulua).